# ora-pasa




## 2. Zenbakiak marraztu

Zenbaki guztiak dagokion kolorearekin marrazten badituzu, Saioaren animalia gogokoenak ezagutuko dituzu.

1. Horia — 2. Gorria — 3. Laranja
4. Berde iluna — 5. Berde argia — 6. Urdin argia



## 3. Asmatu eta marraztu

Aurki itzazu erantzun zuzenak, eta margotu zenbakiak. Zer da ezkutuan dagoen irudia?
Marraztu dagokion erantzunaren kolorearekin.

**1- Non ospatzen da Kontxako Bandera?**
1.- Ondarroan (horia)
2.- Lekeition (berdea)
3.- Donostian (gorria)

**2- Zein da Italiako hiriburua?**
4.- Milan (beltza)
5.- Erroma (urdina)
6.- Bolonia (gorria)

**3- Noiz hasi zen II. Mundu Gerra?**
7.- 1945 (grisa)
8.- 1929 (horia)
9.- 1939 (berdea)

**4- Zenbat biztanle ditu Txinak?**
10.- 900 milioi (gorria)
11.- 1.200 milioi (grisa)
12.- 1.500 milioi (urdina)

**5- Non dago Angelu?**
13.- Lapurdin (beltza)
14.- Nafarroan (berdea)
15.- Araban (urdina)

**6- Nor da Errusiako presidentea?**
16.- Putin (beltza)
17.- Jeltsin (horia)
18.- Gorbatxov (gorria)

## Horoskopoa

### ARIES
MARTXOAK 21 - APIRILAK 20



**Amodioa:** Laster pertsona zoragarri bat ezagutuko duzu.
**Paga:** Diruak ez du zoriontasuna ematen.
**Osasuna:** Hainbeste goxoki jaten baduzu hortzak eroriko zaizkizu.
**Ikasketak:** Beti ikasten da zerbait helduekin.

### TAURUS
APIRILAK 21 - MAIATZAK 20



**Amodioa:** Bihotza harrizkoa duzula ematen du.
**Paga:** Neguan aurreztutakoa gastatzeko ordua da.
**Osasuna:** Buruko mina? Ba, hartu aspirina!
**Ikasketak:** Koaderno berriak erosteko ordua da.

### GEMINI
MAIATZAK 21 - EKAINAK 20



**Amodioa:** Zer gehiago eska diezaiokezu bizitzari?
**Paga:** Lagunak freskagarri batera gonbida itzazu.
**Osasuna:** Igerilekura joateak on egingo dizu.
**Ikasketak:** Telebista gutxiago ikusiko bazenu...

### CANCER
EKAINAK 21 - UZTAILAK 20



**Amodioa:** Zine izarrek baina gehiago ligatzen duzu.
**Paga:** Ez al duzu gehiegi eskatzen?
**Osasuna:** Lo gehiegi egitea ez da ona osasunarentzat.
**Ikasketak:** Astean behin liburu bat irakurri.

### LEO
UZTAILAK 21 - ABUZTUAK 23



**Amodioa:** Lore sorta bat oparitu. Ez zara damutuko.
**Paga:** Etxean lan gehiago egingo bazenu...
**Osasuna:** Fruitu gehiago jan beharko zenuke.
**Ikasketak:** Aurten gelako lehena izan zara.

### VIRGO
ABUZTUAK 24 - IRAILAK 23



**Amodioa:** Lagunez ahaztu zarela dirudi.
**Paga:** Diru zorroa galdu duzula? Nola da posible!
**Osasuna:** Eztarria sendatu arte, ez zaitez atera kalera.
**Ikasketak:** Oraindik goiz da unibertsitatean pentsatzeko.

### LIBRA
IRAILAK 24 - URRIAK 23



**Amodioa:** Batzutan oso burugogorra zara.
**Paga:** Dirua eguzkia bezalakoa da: itsutu egiten du.
**Osasuna:** Xaboiari alergia diozula? Bai zera!
**Ikasketak:** Nor izan zen Mahatma Ghandi?

### SCORPIUS
URRIAK 24 - AZAROAK 23



**Amodioa:** Argi dago bikote zoragarria osatzen duzuela.
**Paga:** Paga dolarretan eskatzea ez da ideia txarra.
**Osasuna:** Eta orain, non daukazu mina?
**Ikasketak:** Udan ingelesa ikasi beharko zenuke.

### SAGITARIUS
AZAROAK 24 - ABENDUAK 23



**Amodioa:** Nor da 4. pisuko bizilagun berri hori?
**Paga:** Olentzero urtean behin etortzen da.
**Osasuna:** Ez al duzu uste gehiegi jaten duzunik?
**Ikasketak:** Etorkizunean, fisika ikasi.

### CAPRICORNIUS
ABENDUAK 24 - URTARRILAK 20



**Amodioa:** Zinemara gonbidatu beharko zenuke.
**Paga:** Dirua soberan duzula ematen du.
**Osasuna:** Udan egon arren, ez edan edari hotzik.
**Ikasketak:** Nabari da historia ez duzula oso gogoko.

### AQUARIUS
URTARRILAK 21 - OTSAILAK 18



**Amodioa:** Ez al diozu inoiz esan oso izen polita duela?
**Paga:** Itsulapiko berria erosi beharko zenuke.
**Osasuna:** Badakizu non dagoen zure arazoa? Buruan.
**Ikasketak:** Dirudienez, Einstein baino gehiago dakizu.

### PISCIS
OTSAILAK 19 - MARTXOAK 20



**Amodioa:** Adi! Laster bere urteak izango dira.
**Paga:** Badira gutxiago dutenak. Ez zaitez gehiegi kexatu.
**Osasuna:** Igartzen da sasoi betean zaudela. Zorionak!
**Ikasketak:** Pekin eta Berlin ez dira gauza bera.